

**ESTATUTO GENERAL DEL ESTADO VASCO
APROBADO EN LA MAGNA ASAMBLEA DE
MUNICIPIOS VASCOS CELEBRADA EN ESTELLA
(LIZARRA) EL DIA 14 DE JUNIO DE 1931**

EXPOSICION

Tradicional e histórica ha sido la libertad de nuestro Pueblo.

Los diversos Estados que lo han compuesto conservaron su innata libertad, sacudiendo victoriosamente cuantos yugos quisieron imponerle en tiempos pasados.

Y siguiendo los impulsos del genio de la raza se dieron a sí mismos el régimen que les convino, sin más sugerencias que su propia voluntad manifestada en sus organismos legislativos tradicionales.

Nuestra historia hasta el siglo XIX es la historia de un pueblo libre amante como el que más de su libertad y celoso guardador de su vida propia contenida en sus fueros, usos y costumbres.

Las leyes aprobadas por las Cortes españolas y promulgadas con fechas de 25 de Octubre de 1839, 16 de Agosto de 1841 y 21 de Julio de 1876, se encaminaron a extender la unidad constitucional de España a los territorios de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Alava.

Su carácter de leyes especiales, la preparación y disposiciones de la del año 1841 y las facultades especiales que se reservan a los Gobiernos en la de 1876, no son si no la consagración de la personalidad peculiar del País Vasco.

Este no dio nunca su consentimiento al régimen de derecho que quisieron crear dichas leyes.

En el transcurso del siglo XIX y durante todo lo que va del presente, la protesta contra la extensión de la unidad constitucional de la Monarquía española fue general y reiteradamente expresada por sus organismos forales y públicos, por las organizaciones políticas y por la opinión general del País.

De aquí que como siempre exista un movimiento universal en el Pueblo Vasco que reclama la derogación de aquellas leyes volviendo al estado jurídico anterior a ellas que es lo que en nuestro País se conoce con el nombre de Reintegración foral.

Manteniendo viva esta reivindicación de los derechos históricos y armonizándolo con la voluntad de no crear, en los momentos en que se está preparando su constitución, dificultades a la consolidación de la República Española, el Pueblo Vasco ha querido que se consagre en la misma Ley constitucional de la misma República la personalidad del País Vasco estructurando la unidad vasca sobre "la base del respeto a las autonomías particulares para asegurar la prosperidad del País Vasco, la libertad y el bienestar material y espiritual de sus habitantes".

A raíz de la caída de la Dictadura en España, el País

**EUSKAL ESTATUAREN ESTATUTU OROKORRA
1931KO EKAINAREN 14AN EUSKAL UDALEK
LIZARRAN EGINDAKO BILTZAR NAGUSIAN
ONARTUA**

AZALPENEA

Usadioz eta historiatik datorkio askatasuna gure Herriari.

Herria osatu duten estatuek zaindu egin dute Herriaren berezko askatasuna, igaro garaietan ezarri nahi izan dizkioten uztarri guztiak gainetik kenduz, garaile.

Eta arrazaren aiurriaren kemenari jarraituz, komeni zitzaien araubidea eman zieten beren buruei, usadiozko beren erakunde legegileetan adierazitako nahia kontuan hartuta, ez beste inolako iradokizunik.

Gure historia, XIX. mendera arte, herri aske baten historia da, gehien maite duenak beste bere askatasuna maite duen herriarena, foruetan, usadioetan eta ohituretan jasota dagoen bere bizitzaren zaindari arduratsua.

Espainiako Gorteek onartu eta 1839ko urriaren 25ean, 1841eko abuztuaren 16an eta 1876ko uztailaren 21ean aldarrikatutako legeak Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako lurraldeetara Espainiako konstituzio-batasuna zabaltzera bideratu ziren.

Baina, lege bereziak izateak, 1841eko legearen prestaketak eta bere xedapenek, eta 1876koan gobernuentzat gorde ziren ahalmen bereziek, denek ere Euskal Herriaren nortasun berezia sendetsi baino ez dute egiten.

Guztiarekin ere, Euskal Herriak inoiz ere ez zion onespenik eman lege horiekin sortu nahi izan zuten zuzenbide-araubideari.

XIX. mendean zehar eta oraingo mende honen egundainokoan, behin eta berriz errepikatzeaz gain orokorra izan da Euskal Herriko foru-erakundeek eta erakunde publikoek, antolakunde politikoek eta Herriko iritzi orokorrak Espainiako Monarkiaren konstituzio-batasuna zabaltzearen kontra egindako protesta.

Horregatik, bada, beti bezala, Euskal Herrian mugimendu unibertsal bat dago lege haiek indargabetzea eskatzen duena, haien aurretiko egoerara bihurtzeko, hori baita gure Herriak foruak berreskuratzea esaten duenean ulertzen duena.

Eskubide historikoen errebindikazio honi bizirik eutsiz, eta Espainiako Errepublika bere Konstituzioa prestatzen ari den garaian hura sendotzen zailtasunik ez jartzeko borondatea adieraziz, Euskal Herriak Errepublikako Konstituzioko Lege berean sendetsi nahi izan du Euskal Herriaren nortasuna, "bakoitzaren autonomiaren errespetua oinarri dela" euskal batasuna egituratu eta "Euskal Herriaren oparotasuna, askatasuna, eta bertako biztanleen ongizate materiala eta espirituala bermatzeko".

Espainian Diktadura erori zenean, Euskal Herria,

Vasco se encontró al igual que los demás pueblos del resto del Estado sin organismos que tuvieran recibido su poder de la voluntad del Pueblo.

Los gobiernos que constituyó la Monarquía en los últimos tiempos no dieron cabida a la manifestación del sufragio popular hasta el día 12 de Abril de 1931, fecha en la cual se celebraron en todo el territorio del Estado elecciones para la designación de los componentes de las Corporaciones Municipales.

Estas elecciones produjeron el cambio de régimen del Estado, implantando la República.

El País Vasco llevó por su parte a las Corporaciones Municipales o Cabildos locales a los legítimos representantes de la voluntad popular.

Careciendo, pues, el País, de toda otra representación emanada del sufragio directo, las Municipalidades vascas sintieron la grave responsabilidad de tener que ser portavoces de los derechos y anhelos del mismo, sin que ello fuera obstáculo para la implantación ordenada y pacífica de la República en España.

Estos derechos y anhelos de nuestro pueblo fueron concretados en el proyecto de celebrar una magna Asamblea de Municipios Vascos, en la que fueran aprobadas las bases y articulado de un proyecto de autonomía del País.

La idea fue aceptada con singular unanimidad por los Municipios, que en número de cuatrocientos ochenta y cinco aprobaron en sus sesiones respectivas la adhesión entusiasta al proyecto de Asamblea y redacción del Estatuto que contuviera las aspiraciones del País.

Este refrendo de los Ayuntamientos fue considerado por los Alcaldes organizadores más que suficiente para proseguir la labor emprendida, asistidos ahora de la confianza del pueblo.

Y dispuestos a que el Estatuto fuera una obra que mereciera el respeto general, encargaron a la merítisima Sociedad de Estudios Vascos su redacción, para que una vez cumplida, se sometiera a la aprobación de los Ayuntamientos.

Cerca de cuatrocientos Municipios vascos de los quinientos veintiocho que componen el País, se dirigieron a su vez a la citada Sociedad en el mismo sentido que sus Alcaldes representantes.

Redactado el Estatuto vasco por la Sociedad de Estudios Vascos, los Alcaldes iniciadores del movimiento en las cuatro Provincias, se reunieron en Pamplona en el Salón del Príncipe de Viana, de la Diputación de Navarra, acordando entre otros extremos la celebración de la Magna Asamblea de Municipios del País Vasco, el día 14 de Junio de 1931, en la capital de Navarra.

Trasladada la Asamblea de Pamplona a Estella, se celebró aquella en esta última ciudad en la fecha indicada.

No hemos de ocuparnos de sus detalles ya que la Asamblea está grabada en el corazón de todos con recuerdo imborrable.

Allí dio el País la nota de unidad y concordia más

Estatuko gainerako herrien antzera, Herriaren borondatek aginpidea jasota zuen erakunderik gabe aurkitu zen.

Azken aldietan Monarkiak eraikitako gobernuek ez zioten botoa emateko aukerarik utzi herriari 1931ko apirilaren 12ra arte; egun horretan egin ziren, hain zuzen, Estatuko lurralde osoan udal korporazioetarako kideak izendatzeko hauteskundeak.

Hauteskunde horiek Estatuaren araubidea aldatzea ekarri zuten, Errepublika ezarri zutelako.

Eta Euskal Herriak herriaren borondateak aukeratutako bidezko ordezkariak eraman zituen udal korporazioetara eta tokian tokiko batzarretara.

Euskal Herriak zuzeneko bototik sortutako beste ordezkariarik ez zuenez, euskal udalek bere gain hartu zuten Herriaren eskubideen eta nahikariaren bozemaile izateko erantzukizun larria, Espainian Errepublika bakez eta ordenaz ezartzeko eragozpen izan gabe.

Gure herriaren eskubide eta nahikari horiek euskal udalen biltzar nagusi bat egiteko proiektu batean gauzatu ziren, bertan Euskal Herriaren autonomiarako proiektu baten oinarriak eta artikulak onartzeko.

Udalek erabateko aho batezkoarekin onartu zuten ideia hori; udal bakoitzak bere bilkuretan onartuta, lauhun eta laurogeita bost izan ziren Biltzarrerako proiektuari eta Herriaren gurariak bilduko zituen estatutua idazteko proiektuari gogotsu atxiki zitzaizkionak.

Alkateek, antolatzaile zirenez, hasitako lanarekin aurrera jarraitzeko nahikotzat jo zuten udalek emandako berronespen hori, herriaren konfiantza zeukatelako alde.

Eta estatutua guztien errespetua jasoko zuen lana izateko deliberaturik, Eusko Ikaskuntza ospetsuari eskatu zioten estatutua idazteko, lana amaitu ondoren, udalen eskuetan onarpenerako jartzeko.

Euskal Herria osatzen duten bostehun eta hogeita zortzi udaletatik ia lauhun izan ziren Eusko Ikaskuntzara jo zutenak alkateek ordezkari moduan egindako eskaera bera egitera.

Eusko Ikaskuntzak Euskal Estatutua idatzi ondoren, Iruñean bildu ziren mugimendua hasi zuten lau probintzietako alkateak, Nafarroako Aldundian, Bianako Printzearen aretoan, eta, besteak beste, Euskal Herriko Udalen Biltzar Nagusia 1931ko ekainaren 14an Nafarroako hiriburuan egitea erabaki zuten.

Iruñeatik Lizarrara Biltzarra aldatu ondoren, esandako egunean egin zen Biltzarra azken aipatutako hirian.

Ez gara zehaztasunetan sartuko, ezabatu ezinezko moduan zizelkatuta baitago Biltzar hura guztion bihotzetan.

Ametsetan baino pentsa ezin zitezkeen batasun eta

gratas que han podido soñarse.

De ella salió refrendado por el pueblo mediante sus mandatarios, el Estatuto adjunto que respetando nuestras personalidades históricas las une en vínculo de eficaz y mutua prosperidad y conveniencia.

Señala para nuestro País, la fecha del 14 de Junio de 1931, el avance más formidable de sus últimos tiempos en orden al logro de nuestras reivindicaciones.

Fue el abrazo de las hermanas mucho tiempo separadas por vicisitudes históricas, abrazo de perdón por si entre ellas existieran agravios que la incomprensión creó y que el desconocimiento de la unidad de raza y personalidad de nuestro pueblo amenazaban ahondar.

Todo esto acabó en Estella, para dar comienzo a una nueva era de luz, animada por el calor que despide el sol de la libertad tanto tiempo esperado y que hoy espende felicidad amaneciendo en nuestro Pueblo.

El Estatuto de Estella significa más que esto.

Es la expresión del alma genuina de la raza con sus aspiraciones espirituales y materiales.

Exige facultades en el orden material, pero con voluntad igualmente soberana, pide también libertad en el orden espiritual, para que nuestro Pueblo se dé a sí mismo aquello que esté más en consonancia con su propia manera de ser.

De aquí que el Estatuto de Estella reserva para el Estado Vasco entre otras facultades, la de regular libremente sus relaciones con la Iglesia, mediante un Concordato que se negociará.

El Estatuto de Estella sigue en este aspecto las modernas tendencias de Constituciones federales recientes, que reconocen esta facultad a sus Estados particulares.

Tal sucede con Baviera y Prusia en Alemania, Friburgo en Suiza y con algunos Estados federales de la República mejicana.

Disposiciones parecidas se encuentran en materias referentes a la adquisición de los derechos de ciudadanía, en las referentes a legislación social, instrucción, etc, etc... encaminadas todas ellas a fortificar y robustecer nuestra personalidad, un tanto resquebrajada por leyes, que no responden a la textura íntima de nuestro espíritu racial, vivo hoy, a pesar del ataque incesante a que ha sido sometido en los últimos tiempos.

Por estimar que interpreta su espíritu más íntimo, el Pueblo Vasco, en plebiscito que bien puede calificarse de definitivo, ha sancionado en las últimas elecciones a Cortes Constituyentes el contenido del Estatuto aprobado en Estella.

La satisfacción de los Municipios organizadores de los actos que han constituido el motivo fundamental de este despertar del País, no puede ser más intensa.

gogaidetasun pozgarrienak bete ziren han.

Herriaren ordezkarietara esker berronetsia atera zen handik honi erantsita doan Estatutua, gure nortasun historikoak errespetatu eta elkarren oparotasuna eta onurak eraginkor lotzen dituen Estatutua.

Gure Herriarentzat 1931ko ekainaren 14a egun seinalea da, gure errebindikazioak lortzeko bidean azken aldiotan emandako aurrera pausorik ikaragarriena baita.

Historiaren gorabeherak luzaro bananduta eduki dituzten neba-arreben besarkada izan zen, barkamen-besarkada, neba-arreben arteko ulertezinak agian sortutako laidoak garbitzeko; gure Herriaren arrazaren eta nortasunaren batasuna ez ezagutzeak are sakonagoak izateko arriskua baitzekarren.

Hori guztia Lizarran amaitu zen, argi-garai berri bati hasiera emanez, hainbeste denbora itxaron izandako askatasun-eguzkiak zabalduetako berotasunak bizkortuta, eta gure Herrian zorionaren distira argitzen ari da.

Lizarrako Estatutuak hori baino gehiago esan nahi du.

Arrazaren benetako arimaren adierazpena da, bere gurari espiritual eta materialekin batera.

Ahalmenak eskatzen ditu arlo materialerako, baina, aldi berean burujabetasun-nahiez, askatasuna eskatzen du arlo espiritualerako, gure Herriak bere izaerarekin ondoen datorrena eman diezaien bere buruari.

Horregatik, Lizarrako Estatutuak Euskal Estaturako gordetzen du, besteak beste, Elizarekiko harremanak askatasunez arautzeko ahalmena, konkordatu bat itunduta.

Lizarrako Estatutuak arlo horretan antzerko konstituzio federalen joera berrienak jarraitzen ditu, bakoitzak bere estatuari ahalmen hori onartzen dion heinean.

Horrela ari da gertatzen Bavarian eta Prusian (Alemanian), Friburgon (Suitzan), eta Mexikoko Errepublikako zenbait estatu federaletan.

Antzerako xedapenak jaso dira beste arlo batzuetarako ere, herritartasun-eskubideak eskuratzeko, gizarte-legediari dagokionean, irakaskuntzari buruz, eta abar. Gure nortasuna indartu eta sendotzeko bideratu dira xedapen horiek guztiok, gure izpiritua barne-muineko senari erantzuten ez dioten legeek arraiduxe utzia dute eta; hala, bizirik dirau oraindik orain nortasun horrek, azken aldiotan eten gabe eraso badute ere.

Estatutuak Euskal Herriaren bere izpiriturik kutunena adierazten duela uste izan delako Herriak, Konstituzio Gorteetarako azken hauteskundeetan, behin betikotzat jo daitekeen plebiszitua erekin, Euskal Herriak sendetsi egin du Lizarran onartutako Estatutuaren edukia.

Herriaren iratzarkundea ospatzeko ekintzak antolatuta dituzten udalerrien poza ezin bada, biziagoa izan.

La fecha del 25 de Octubre de 1839, señaló el comienzo de las desdichas de nuestro Pueblo.

El día 14 de junio de 1931 ha señalado el comienzo de una era de reivindicación eficaz, de lo que en justicia nos corresponde.

Que Dios salve a nuestro Pueblo e infunda en él el aliento que necesita, para que lo que hoy es letra muerta, sea en breve realidad vivificante.

Los alcaldes de Sangüesa, Guecho, Azpeitia y Llodio Según acuerdo adoptado por unanimidad en la Asamblea de Estella, los municipios Vascos declaran solemnemente que la aprobación de este Estatuto no supone renuncia a la reintegración foral plena, concretada en su anhelo a la derogación total y plena de las leyes de 25 de Octubre de 1839, 16 de Agosto de 1841 y todas cuantas, bien con anterioridad o posterioridad a estas fechas hayan conculcado de alguna manera los derechos sagrados de este Pueblo.

ESTATUTO GENERAL DEL ESTADO VASCO

Declaración preliminar

Artículo 1.º- Se declara que el País Vasco, integrado por las actuales provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, constituye una entidad natural y jurídica con personalidad política propia y se le reconoce como tal el derecho a constituirse y regirse por sí mismo, como Estado autónomo dentro de la totalidad del Estado Español, con el que vivirá articulado conforme a las normas de la Ley de Relaciones, concertada en el presente Estatuto.

Cada una de las referidas provincias se constituirá y regirá a su vez autónomicamente, dentro de la unidad del País Vasco.

Este Estatuto tiene por objeto establecer, de acuerdo con el Parlamento Español, las normas jurídicas que permitan consagrar en la ley la expresada personalidad natural, estructurando la unidad vasca sobre la base del respeto a las autonomías particulares, para asegurar la prosperidad del País Vasco, la libertad y el bienestar material y espiritual de sus habitantes.

Título primero

Territorio, Derechos y Obligaciones

Artículo 2.º- El territorio del Estado Vasco queda hoy integrado por todo el contenido, dentro de los límites de las actuales provincias de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya.

Podrán ser admitidos en adelante a formar parte integrante del Estado Vasco, otros territorios cuyos habitantes así lo soliciten, mediante el voto expresado plebiscitariamente del 80% de los electores incluidos en su censo electoral para elecciones generales, y siempre que la admisión sea autorizada por el Parlamento Español, por el Consejo General Vasco y por las asambleas legislativas particulares de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya.

Será también indispensable que el territorio que solicite la unión sea continuo y colindante con el territorio vasco, en todo o parte de su perímetro.

1839ko urriaren 25ean hasi zen gure Herriaren zoritxarra.

1931ko ekainaren 14an, aldiz, justizian dagokiguna eraginkor errebindikatzeko aldi bat hasi da.

Jainkoak gorde dezala gure Herria, eta behar duen hatsa eman diezaiola, egun idatzi hila dena, laster errealitate bizigarri izan dadin.

Zangoza, Getxo, Azpeitia eta Laudioko alkateak

Lizarrako Biltzarrean aho batez hartutako akordioaren arabera, euskal udalek handikiro aldarrikatzen dute Estatutu hau onartzearekin ez diotela uko egiten foruak osorik berreskuratzeari, 1839 urriaren 25eko Legea, 1841eko abuztuaren 16ko Legea, eta egun horiek baino lehenago eta geroago Herri honen eskubide sakratuak nola edo hala hautsi dituzten lege guztiak erabat eta osorik indargabetzeko irrikak adierazten duen moduan.

EUSKAL ESTATUAREN ESTATUTU OROKORRA

Atariko aldarrikapena

1. artikulua.- Hemen aldarrikatzen da Euskal Herria, egungo Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko probintzietan osatuta, berezko nortasun politikoa duen izaki natural eta juridikoa dela, eta halakoa denez, Espainiako Estatu osoaren baitan Estatu autonomo moduan bere burua eratu eta eraentzeko eskubidea aitortzen zaiola, eta Estatutu honetan itundutako Harreman Legeko arauekin bat etorritik harekin giltzatuta biziko dela.

Aipatutako probintzia horietako bakoitza autonomiaz eratu eta eraenduko da bera ere, Euskal Herriaren batasunaren baitan.

Estatutu honen xedea, Espainiako Parlamentuarekin bat etorritik, adierazitako nortasun naturala legean sendesteko arau juridikoak ezartzea da, bakoitzaren autonomiarekiko errespetua oinarri hartuta euskal batasuna egituratuz, Euskal Herriaren oparotasuna bermatzeko eta bertako herritarren askatasun eta ongizate materiala eta espirituala ziurtatzeko.

Lehenengo titulua

Lurraldea, eskubideak eta betebeharrak

2. artikulua.- Euskal Estatuaren lurraldea egungo Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko probintzien mugen barruan biltzen den guztiak osatzen du gaur egun.

Euskal Estatuaren parte osagarri izateko onartu ahal izango dira aurrerantzean beste lurralde batzuk ere bertako biztanleek hala eskatzen badute, hauteskunde orokorretarako hautesle-eroldako hautesleen %80k plebiszituz adierazitako botoaren bidez, baldin eta Espainiako Parlamentuak, Euskal Kontseilu Nagusiak, eta Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko biltzar legegile bakoitzak lurralde hori sartzea onartzen badute.

Ezinbestekoa izango da, halaber, Euskal Herrian biltzea eskatzen duen lurraldea jarraitua izatea, eta euskal lurraldearen mugakide perimetro osoan nahiz zati batean.

Si dicho territorio estuviera enclavado en su totalidad dentro del territorio vasco, bastará que solicite la incorporación la mayoría de los habitantes de aquél.

Los territorios que, sin constituir una provincia se incorporen al Estado Vasco, quedarán agregados a la provincia vasca colindante que elijan.

Cualquier territorio agregado al Estado Vasco con arreglo a lo dispuesto en este artículo, podrá obtener su segregación en las mismas condiciones en que se acordó su agregación.

Artículo 3.º - Los derechos y obligaciones establecidos en este Estatuto serán aplicables:

a) En cuanto se refieran al orden político: a los naturales del País Vasco siempre que tuvieran un año de residencia dentro de él.

La misma regla se aplicará a los hijos de padre y madre naturales del mismo, o solamente de padre o de madre de dicha naturaleza, mediante igual condición de un año de residencia.

Y a los que no siendo naturales del país, ni siéndolo tampoco sus padres, hubieran adquirido vecindad mediante residencia de diez años por lo menos en el mismo.

Respecto a la elegibilidad, se estará para el Consejo General a lo dispuesto en este Estatuto y para los cargos de los Estados particulares, a lo que se establezca en sus Estatutos respectivos.

Los derechos contenidos en este párrafo podrán ser modificados por razones de reciprocidad.

b) En cuanto al derecho civil, a las personas que llevando diez años de residencia legal efectiva en territorio vasco, no hayan optado por sí mismas o por sus representantes legales por la conservación de su naturaleza de origen, en la forma que establezcan las leyes.

Igualmente a las personas que llevando dos años de residencia legal efectiva en territorio vasco, opten en forma legal por la adquisición del derecho de naturaleza vasca.

c) En cuanto a las materias de carácter social, será aplicable cuanto en virtud de la autonomía consagrada en este Estatuto se establezca, a todos los habitantes del país, cualesquiera que sean su naturaleza o el tiempo de su residencia, así como a todo patrono u obrero que ejercite su actividad en elementos de transporte matriculados o inscritos en los Registros del País Vasco.

Título segundo

Los Poderes del Estado Vasco

Artículo 4.º - El poder legislativo vasco corresponde al Consejo General en pleno para los asuntos comunes y demás especificados en su Reglamento orgánico, o a las Juntas de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava y Cortes de Navarra para los asuntos particulares de cada una de ellas sin más limitaciones que las atribuidas al Consejo General.

El poder ejecutivo se atribuye a la Comisión ejecutiva del Consejo General del País Vasco y a las

Aipatutako lurralde hori osorik euskal lurraldearen barruan badago, aski izango da sartzeko eskabidea bertako biztanle gehienek egitea.

Euskal Estatuan bil daitezten lurraldeak, probintzia oso bat ez badira, berek aukeratutako euskal probintzia mugakideari gehituko zaizkio.

Artikulu honetan xedatutakoaren arabera Euskal Estatuari gehitutako lurralde orok bertatik bereiztea lor dezake, gehitzeko erabilitako baldintza berberetan.

3. artikulua.- Estatutu honetan ezarritako eskubide eta betebeharrak hauei aplikatuko zaizkie:

a) Politikari dagokionez, Euskal Herrian jaiok direnei, bertan urtebeteko egoitzaldia badaukate.

Arau berbera aplikatuko zaie bertan jaiotako aita eta ama daukaten seme-alabei, berdin aita edo ama bada bertan jaiotakoa, baldin eta urtebeteko egoitzaldia badaukate.

Hala aplikatuko zaizkie Euskal Herrian jaiok ez direnei ere, gurasoak ere bertokoak izan ez arren, gutxienez hamar urtez bertan egoitzaldia izan ondoren, auzotasuna lortu badute.

Hautagarritasunari dagokionez, Estatutu honetan xedatutakoari lotuko zaio Kontseilu Nagusirako bada; eta estatu bakoitzeko karguetarako denean, bakoitzaren estatutuan ezarritakoari.

Paragrafo honetan jasotako eskubideak aldatu egin daitezke elkarrekiko arrazoiak tarteko.

b) Zuzenbide zibilari dagokionez, euskal lurraldean benetan hamar urtez legezko egoitzaldia daukaten pertsoneri, baldin eta, bakoitzak berak zuzenean edo beren legezko ordezkarien bidez, jatorrizko izaerari eusteko eskabiderik egin ez badute legeetan ezarritako eran.

Berdin euskal lurraldean benetan urte biko legezko egoitzaldia daukaten pertsoneri ere, euskal izaeraren eskubidea lortzeko aukera lege egiten badute.

c) Gai sozialei dagokionez, Estatutu honetan sendetsitako autonomiaren indarrez ezarritako guztia aplikatuko zaie herri honetako biztanle guztiei, beren jatorria edo egoitzaldia edozein izanda ere, baita Euskal Herriko erregistroetan matrikulatutako edo izena emandako garraioetan diharduen ugazaba zein langile orori ere.

Bigarren titulua

Euskal Estatuaren botereak

4. artikulua.- Euskal botere legegilea Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurari dagokio gai orokorretarako eta bere erregelamendu organikoan zehaztutako beste guztietarako, edo Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Batzar Legegileei eta Nafarroako Gorteei, horietako bakoitzaren gai zehaztutarako, Kontseilu Nagusiarri egotzitako muga berberekin.

Botere betearazlea Euskal Herriko Kontseilu Nagusiko Batzorde Betearazleari dagokio Euskal

Diputaciones de Alava, Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra, según se trate de materias relativas a la totalidad de aquél o de las privativas a cada uno de los Estados particulares.

El poder judicial será ejercido por el Tribunal Supremo del País Vasco y demás Magistrados, Jueces o autoridades componentes de la Judicatura o Cuerpo Judicial vasco, con arreglo a lo que se determine en el Reglamento de organización y funciones del mismo.

Título tercero

Organos Rectores del País Vasco

CAPITULO PRIMERO

El Consejo General y la Comisión Ejecutiva

Artículo 5.º - Para representar a la totalidad del País Vasco y regir su actuación en sus relaciones con el Estado Español, en las interprovinciales y en todos los asuntos, obras y servicios comunes a las entidades autónomas integrantes de aquél con la competencia y atribuciones que en este Estatuto se determinan, se crea el Consejo General del País Vasco.

Artículo 6.º - Este Consejo se compondrá de ochenta representantes a razón de veinte por cada una de las dichas cuatro entidades y serán nombrados por las Juntas o Asambleas legislativas de cada una de ellas.

Su actuación durará cuatro años y podrán ser reelegidos.

Artículo 7.º - Habrá dentro del Consejo una Comisión Ejecutiva integrada por ocho representantes, que recibirán el nombre de Consejeros Permanentes y cuyo mandato tendrá la misma duración con igual derecho a reelección.

Las expresadas Juntas o Asambleas al elegir los 20 representantes, determinarán los dos de entre ellos que habrán de ocupar estos puestos y designarán otros dos, en calidad de suplentes.

Artículo 8.º - El Presidente del Consejo lo será también de la Comisión Ejecutiva, debiendo hacerse la elección por la mayoría absoluta de los 80 representantes y en el caso de que en la primera votación no se obtuviera esta mayoría, se repetirá entre los dos que hubieren obtenido mayor número de votos en la primera.

El cargo de Presidente se renovará cada dos años y en cada renovación deberá recaer en un representante de los designados por cada una de las entidades particulares en la rotación siguiente: Navarra, Vizcaya, Alava y Guipuzcoa, es decir, que el primer Presidente deberá ser navarro, el segundo vizcaíno, el tercero alavés y el cuarto guipuzcoano, y así en lo sucesivo.

Artículo 9.º - La Comisión Ejecutiva estará domiciliada en la ciudad de Pamplona (Iruña) en la que celebrará sus reuniones y en donde estarán radicadas también sus oficinas y las del Consejo y la Secretaría General.

El Consejo se reunirá en cada período bienal en

Herri osoko gaiei buruzkoa denean, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako aldundiei, estatu bakoitzaren gai bereziei buruzkoa denean.

Botere judiziala Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak eta euskal Epailtzako magistratu, epaile edo agintariek beteko dute, bere antolaketa eta eginkizunetako erregelamenduan zehaztutakoaren arabera.

Hirugarren titulua

Euskal Herriko organo artezkariak

LEHENENGO KAPITULUA

Kontseilu Nagusia eta Batzorde Betearazlea

5. artikulua.- Euskal Herri osoa ordezkatzeko eta Espainiako Estatuarekiko harremanetan, probintzien arteko harremanetan, eta Euskal Herria osatzen duten erakunde autonomoen baterako gai, lan eta zerbitzuetan bere jardura eraentzeko, Euskal Herriko Kontseilu Nagusia sortzen da, Estatutu honetan zehaztutako ahalmen eta eskumenekin.

6. artikulua.- Kontseilu horrek laurogei ordezkari izango ditu, hogeina ordezkari gorago aipatutako lau erakundeetako bakoitzaren izenean, eta erakunde bakoitzeko batzar edo biltzar legegileek izendatuta.

Ordezkarien jarduna lau urtekoa izango da eta berriro hautatu ahal izango dira.

7. artikulua.- Kontseiluaren barruan Batzorde Betearazle bat egongo da zortzi ordezkari osatuta. Kideoi kontseilukide iraunkor esango zaie, eta beren agintaldiak besteak beste iraungo du eta berriro hautatuak izateko eskubidea izango dute.

Goian aipatutako batzar edo biltzar legigileek 20 ordezkariak hautatzen dituztenean ordezkari horietako bi bereizi behar ditzuzte kontseilukide iraunkorren postuok betetzeko, eta beste kide bi, ordezkari izateko.

8. artikulua.- Kontseiluko lehendakaria izango da Batzorde Betearazleko lehendakari ere. Laurogei ordezkari gehiengo osoz egin behar da hautaketa, eta, lehenengo bozketan gehiengo osorik lortzen ez bada, lehenengo txanda horretan boto-kopururik handiena lortu duten bi kideen artean egingo da hautaketa.

Lehendakari-kargua bi urtetik behin berritu behar da, eta berritzen den bakoitzean erakunde partikular bakoitzak izendatutako ordezkari bati egokitu behar zaio hurrenkera hau kontuan hartuta: Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa; hau da, lehenengo lehendakaria nafarra izango da, bigarrena bizkaitarra, hirugarrena arabarra, eta laugarrena gipuzkoarra, eta horrela hurrengoetan ere.

9. artikulua.- Batzorde Betearazleak Iruñean izango du egoitza; bertan egingo ditu bere bilerak eta bertan kokatuko dira bere bulegoak, Kontseiluarenak eta Idazkaritza Nagusiarenak ere.

Kontseilua lau hiriburuetako batean bilduko da

cada una de las cuatro capitales, por el orden de rotación establecido en el artículo anterior.

Artículo 10.º - El Consejo nombrará libremente un secretario general retribuido, que lo será a la vez de la Comisión Ejecutiva.

Artículo 11.º - El Consejo formará un Reglamento para su régimen y funcionamiento, en el que se especificarán sus atribuciones dentro de la norma general establecida en los artículos 5.º y 20, con la determinación de departamentos o secciones que estime conveniente establecer para la más eficaz realización de su labor, señalando el modo de arbitrar los recursos necesarios para su actuación, reglas para las convocatorias, asesoramientos, orden y número de sus sesiones y demás materias relativas a sus fines.

Este Reglamento, antes de ser puesto en vigor, deberá ser sometido a la aprobación por separado de las cuatro provincias.

Artículo 12. – Los acuerdos del Consejo y de la Comisión ejecutiva se adoptarán por mayoría de votos de los que estuvieren presentes en la respectiva reunión.

Sin embargo, cuando el asunto sobre el que recayó acuerdo se refiera exclusiva o preponderantemente a una sola de las cuatro provincias a instancia de uno cualquiera de los representantes de ella en el Consejo, podrá elevarse el acuerdo a la confirmación de éste cuando se hubiere adoptado por la Comisión ejecutiva y si el Consejo lo confirmara o se tratase de acuerdo adoptado originariamente por él, se someterá el asunto a una Comisión mixta compuesta por igual número de personas designadas, la mitad por el Consejo y la otra mitad por la provincia reclamante.

La Comisión mixta, deberá ser presidida por el que hubiere desempeñado la Presidencia del Consejo en el bienio inmediatamente anterior, o por el de dos bienios anteriores si aquel procediere de la Provincia interesada.

Artículo 13. – A la terminación de cada bienio, el Consejo General redactará una Memoria explicativa de su gestión durante dicho período la que, acompañada de un estado de cuentas de lo invertido con sus oportunas justificaciones, remitirá dentro del primer trimestre siguiente para su examen y aprobación, o censura en su caso, a la Comisión Plena de Residencia, que se constituirá con todos los miembros de las cuatro Diputaciones del País.

Esta Comisión emitirá su dictamen en el término de un mes y, si fuera aprobatorio, lo enviará al Consejo y a cada una de dichas Diputaciones para su conocimiento y archivo.

Si fuere de censura, se concederá al Consejo otro término igual para explicar o justificar su actuación en el punto o puntos censurados, emitiendo a continuación la Comisión de Residencia su nuevo

biurteko agintaldi bakoitzean, aurreko artikuluan ezarritako hurrenkerari jarraituz.

10. artikulua.- Kontseiluak askatasunez izendatuko du idazkari nagusi bat, soldata eta guzti, eta aldi berean Batzorde Betearazleko idazkari ere bera izango da.

11. artikulua.- Kontseiluak erregelamendu bat egingo du bere araubide eta jarduerarako. Bertan zehaztuko dira bere eskumenak, 5. eta 20. artikuluetan ezarritako arau orokorraren barruan, baita bere lana eraginkortasunik handienaz betetzeko egoki iritzi ditzan sailak edo atalak finkatu ere, eta bertan azalduko dira Kontseiluaren jarduerarako beharrezko baliabideak izendatzeko modua, Kontseiluaren bileretarako deialdiak, aholkuak, gai-zerrendak eta kopuruak zehazteko arauak eta Kontseiluaren helburuetarako gainerako gaiak.

Erregelamendu hori, indarrean sartu aurretik, lau probintziek onartu beharko dute bakoitzak bere aldetik.

12. artikulua.- Kontseiluaren eta Batzorde Betearazlearen akordioak bilera bakoitzean dauden ordezkarien botoen gehiengoaz onartuko dira.

Hala ere, adostutako dena delako akordioa lau probintzietako bati bakarrik badagokio edo berari gehien batean, Kontseiluan probintziak dauzkan ordezkarietako edozeinek Kontseiluaren sendespena jasotzeko jar lezake akordio hori, Batzorde Betearazleak hartutakoa bada, eta, Kontseiluak sendetsitakoa bada nahiz Kontseiluak hasieratik hartutako akordioa bada, bitariko batzorde baten esku jarri beharko da gaia, bi aldeetatik kide-kopuru berdina izendatuta, erdiak Kontseiluaren izenean eta beste erdiak erreklamazioa egin duen probintziaren izenean.

Bitariko batzorde horren lehendakari aurre-aurreko biurtekoan Kontseiluko lehendakari izan den berbera izango da, edo biurteko bi lehenagokoa, baldin eta azkeneko lehendakaria kasuan sartuta dagoen probintziakoa izan bada.

13. artikulua.- Biurteko bakoitza amaitzen denean, Kontseilu Nagusiak oroitza bat idatziko du aldi horretan berak egindako kudeaketa azaltzeko, eta, ezarritako kontuen egoera-orriarekin eta ezarketen frogagirikin batera, Kontu-hartzeko osoko batzordeari aurkeztuko dio hurrengo hiruhilabetekoan, aztertu eta onar dezan, edo gaitzetsi, hala bada. Kontu-hartzeko batzordea Euskal Herriko lau aldundietako kide guztiekin osatuko da, eta hilabeteko epean emango du bere irizpena.

Irizpenean onarpena jasotzen bada, Kontseiluari eta aipatutako lau aldundiei bidaliko die irizpena, horren berri izan eta gorde dezaten.

Irizpenean gaitzespena jasotzen bada, beste hainbesteko denbora emango zaio Kontseiluari gaitzetsitako puntuko edo puntuetako jarduera azaldu edo zuritu dezan. Ondoren, Kontu-hartzeko

fallo, el cual, si se mantuviese en él la censura, pasará a la resolución definitiva de un Tribunal compuesto por doce representantes de las cuatro Asambleas legislativas del País, nombrados por ellas a razón de tres cada una.

CAPITULO SEGUNDO

La Judicatura o Cuerpo Judicial y Fiscal Vasco

Artículo 14. – El Poder y las funciones judiciales del País Vasco correrán a cargo del Cuerpo Judicial y Fiscal del Estado autónomo, que lo organizará y ordenará libremente.

La organización se ajustará a los principios básicos siguientes que podrán ser modificados a virtud del apartado tercero del artículo 15.

Primero. – Supresión de los Juzgados Municipales, pasando el Registro Civil a los Ayuntamientos y sustituyendo a aquéllos en las demás funciones que les están encomendadas, Juzgados de Zona a cargo de jueces letrados, con secretarios también letrados.

Habrán de tener esta misma cualidad los fiscales de tales Juzgados.

Disposiciones reglamentarias determinarán:

- a) Número de dichos Juzgados
- b) Zona o demarcación correspondiente a cada uno
- c) Cualidades que deberán tener estos jueces, fiscales y secretarios, entre las que aparte del título de abogados, deberán figurar las de ser naturales del País Vasco, o residentes en él con más de diez años.
- d) Remuneración
- e) Forma de su nombramiento a base de la formación de un Cuerpo en el que se ingrese por oposición hecha en el País.
- f) Forma de actuación de estos Juzgados a base de que la ejercerán no en una localidad o residencia fija, sino en las correspondientes localidades de su respectiva Zona, trasladándose a ellas en los días periódicos o eventuales que sean adecuados y se determinen según las necesidades de su función.

Segundo.– Modificación de los actuales Juzgados de Primera Instancia e Instrucción, conforme a las normas siguientes:

- a) Mantenimiento de los Juzgados mixtos de Primera Instancia e Instrucción en las demarcaciones de menor importancia en cuanto a la población y a la complejidad de su vida jurídica.
- b) Establecimiento de Juzgados de Instrucción separados de los de Primera Instancia, en las demarcaciones que por su mayor importancia lo requieran.
- c) Creación de cuatro Juzgados o Tribunales en las capitales para los asuntos mercantiles de toda la Provincia con la sola excepción de aquellos, que, por razón de su pequeña cuantía, se atribuyan a los Juzgados de Zona en evitación de molestias y perjuicios para los interesados.
- d) Un Tribunal Industrial para cada capital de

batzordeak beste ebazpen bat emango du, eta gaitzespina jasotzen bada berriz ere, Euskal Herriko lau biltzar legegileek hiruna kidez izendatuko dituzte, eta hamabi ordezkari osatutako Epaimahaiaren esku utziko da behin betiko erabakia.

BIGARREN KAPITULUA

Euskal Epaitza eta Fiskaltza

14. artikulua.- Euskal Herriko botere judiziala eta eginkizunak Estatu Autonomoaren Epaitzaren eta Fiskaltzaren esku egongo dira, eta askatasunez antolatu eta bideratuko du eskumen hori.

Ondorengo oinarritzko printzipio hauei lotuko zaie antolaketa, nahiz eta 15. artikuluko hirugarren idatzatiaren indarrez aldatu ere egin ahal izango diren.

Lehenengoa.– Udal-epaitegiak ezabatu egingo dira, eta Erregistro Zibila udaletara pasako da; epaile letraduen esku egongo diren eskualdeko epaitegiek egingo dute udal-epaitegien ordezkoa, udal-epaitegiek aginduta dituzten gainerako eginkizunetan; idazkariak ere letraduak izan behar dira.

Epaitegi horietako fiskalek ere ezaugarri berbera eduki behar dute.

Erregelamenduz zehaztuko dira:

- a) Epaitegi horien kopurua.
- b) Epaitegi bakoitzari dagokion eskualdea edo barrutia.
- c) Epaileek, fiskalek eta idazkariak izan behar dituzten ezaugarriak, besteak beste, abokatu-titulua izatea, Euskal Herrian jaioak izatea, edo Euskal Herrian hamar urte baino gehiago bizi izatea.
- d) Ordainsaria.
- e) Horiek guztiok izendatzeko era, Euskal Herrian egindako lehiaketa bidez osatutako kidegoa oinarri dela.
- f) Epaitegi horien jarduteko era, ez baitute herri edo egoitza finko bakarrean jardungo, baizik eta bakoitzaren eskualdeko herrietan, txandaka edo egun egokietan herri horietara joanez, beti ere beren eginkizunen premien arabera zehaztutako moduan.

Bigarrena.- Egungo Lehen auzialdiko eta instruzioko epaitegiak aldatu egingo dira, arau hauen arabera:

- a) Lehen auzialdiko eta instruzioko bitariko epaitegiei lehengoan eutsiko zaie, biztanle-kopuruak eta bertako bizitza juridikoak garrantzi gutxiago daukaten barrutietan.
- b) Lehen auzialdiko epaitegietatik bananduta, instrukzio-epaitegiak ezarriko dira garrantzi gehiago daukaten barrutietan, beharrezkoa denean.
- c) Hiriburuetan lau epaitegi edo auzitegi sortuko dira probintzia guztiko merkataritza-gaietarako; hala ere, zenbatekoak txikiak direnean, eskualdeko epaitegiei egotziko zaizkie, interesatuei kalterik eta galerarik ez sortzeko.
- d) Industria-gaietako Auzitegi bana jarriko da lau

provincia, pudiéndose atribuir también esta jurisdicción a determinados jueces de Zona en las de carácter industrial obrero.

e) Un Tribunal Contencioso-administrativo en cada capital de provincia.

f) Todos los funcionarios del Cuerpo Judicial y Fiscal habrán de reunir las condiciones de naturaleza o residencia fijadas para los jueces y secretarios de Zona.

Tercero— Establecimiento en Bilbao de una Audiencia Territorial con una Sala de lo Civil para las apelaciones de los Juzgados de Vizcaya y Alava, manteniendo la de Pamplona con jurisdicción en Guipúzcoa y Navarra.

Cuarto. Mantenimiento de las actuales Audiencias de lo Criminal sin más modificación que la relativa a la provisión del personal y sus condiciones.

Quinto.— Creación del Tribunal Supremo Vasco, con tres salas, una de lo Civil, otra de lo Contencioso-administrativo y otra del trabajo y Reforma Social que entenderán: la primera en los recursos de casación relativos a la aplicación del Derecho Civil y Mercantil y recursos gubernativos, contra calificaciones de los Registradores de la Propiedad de las cuatro provincias; la segunda, en las apelaciones de los Tribunales de lo Contencioso de las mismas, que funcionarán por ahora como actualmente; y la tercera, en los recursos de nulidad y casación relativos a materias reguladas por el Código del Trabajo u otras leyes sociales.

Este Tribunal Supremo tendrá su residencia en Pamplona.

Sexto.— Exigencia inexcusable del conocimiento y habla corriente del euskera, demostrados ante un Tribunal designado por la Academia de Lengua Vasca y acreditado por la correspondiente certificación de ésta para el desempeño de los cargos de Jueces, Magistrados, Fiscales, Secretarios, Oficiales, Habilitados y demás Auxiliares de los Juzgados y Tribunales expresados, excepto las Audiencias Territoriales y el Tribunal Supremo y los jueces de Zona, de Instrucción y de Primera Instancia de los territorios en que se habla exclusivamente el castellano.

Séptimo. — Exigencia idéntica para todos los notarios y demás funcionarios análogos con la misma excepción.

Octavo. — Los nombramientos de todos los cargos del Cuerpo Judicial serán hechos por el Tribunal Supremo del Estado autónomo.

Los que ocurran en este Tribunal, incluso el de su Presidente, por todos los miembros del mismo y los Decanos de los Colegios de Abogados y Notarios del País.

Título cuarto

Facultades.

Artículo 15. — El Estado Vasco mediante sus organismos rectores de carácter general y los

probintzietako hiriburu bakoitzean, nahiz eta eskualdeetako zenbait epaileri egotzi ahal izango zaien jurisdikzio hori langileei buruzko gaietan.

e) Probintzia bakoitzeko hiriburuan administrazioarekiko auzien auzitegi bat egongo da.

f) Izaerari edo egoitzari dagokionez eskualdeetako epaile eta idazkarietat finkatutako ezaugarri guztiak bete behar dituzte Epailetzako eta Fiskaltzako funtzionario guztiek.

Hirugarrena.- Lurralde Auzitegi bat jarriko da Bilbon Bizkaia eta Arabako epaitegiaren apelazioetarako Zibileko sala batekin, eta eutsi egingo zaio Iruñekoari, Gipuzkoa eta Nafarroaren gainean jurisdikzioa izateko.

Laugarrena.- Eutsi egingo zaie egungo Kriminaleko auzitegiei; hala ere aldatu egingo dira langile-lanpostuak betetzeko erak eta horretarako baldintzak.

Bosgarrena.- Euskal Herriko Auzitegi Nagusia sortuko da, eta hiru sala izango ditu, Zibilekoa bata, Administrazioarekiko Auzietakoa bestea, eta Erreforma Sozialekoa hurrena. Zibileko Salak Zuzenbide Zibila eta Merkataritza-Zuzenbidea aplikatzeko kasazio-errekurtsoak hartuko ditu, baita lau probintzietako jabetza-erregistratzaileen kalifikazioen kontra jarritako gobernuaren errekurtsoak ere; Administrazioarekiko Auzietako Salak administrazio-auzietako epaitegien apelazioak hartuko ditu; eta Erreforma Sozialeko Salak, azkenik, Laneko Kodeak eta gainerako lege sozialek araututako gaiei buruzko deuseztasun-errekurtsoak eta kasazio-errekurtsoak.

Auzitegi Nagusiak Iruñean izango du egoitza.

Seigarrena.- Euskaltzaindiak izendatutako epaimahai baten aurrean erakutsi eta Euskaltzaindiaren ziurtagiri baten bidez egiaztatuta, aipatutako epaitegi eta auzitegiaren epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak, ofizialek, habilitatuek eta gainerako laguntzaileek beren karguak betetzeko, euskaraz nahitaz jakin eta erraz hitz egin behar dute; salbuespen dira, ordea, bai lurralde auzitegia eta Auzitegi Nagusia, eta bai gaztelania hutsez hitz egiten den lurraldeetako eskualdeko, instrukzio eta lehen auzialdiko epaileak.

Zazpigarrena.- Eskakizun berbera notarioentzat eta antzerako funtzionario guztientzat, salbuespen berberarekin.

Zortzigarrena.- Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak egingo du Epailetzako kargu guztien izendapena.

Auzitegi Nagusikoak, eta bertako lehendakariarena, aldiz, auzitegi horretako kide guztiek eta Euskal Herriko abokatuen eta notarioen elkargoetako dekanoei egingo dute.

Laugarren titulua

Ahalmenak

15. artikulua.- Euskal Estatuak, bere organo azterkari orokorren bidez eta probintzietako

establecidos en los Estatutos particulares, actuando todos conforme a sus respectivas atribuciones, tiene competencia para legislar, administrar y juzgar, haciendo que se ejecuten sus leyes y decretos y los fallos de sus Tribunales y Juzgados, en las materias siguientes:

Primero. Las relativas a la constitución y al régimen autonómico del País Vasco, interpretación y aplicación de este Estatuto general y de los Estatutos particulares.

Segundo. Administración local, comprendiendo la organización y el régimen municipal y de los funcionarios afectos a sus servicios, tales como Secretarios, Interventores, Médicos, Inspectores de Sanidad u otros titulares.

Tercero. Organización y administración de la Justicia en todos sus órdenes y grados, ordenación de los registros civil, mercantil y de la propiedad y del notariado.

Cuarto. Las relaciones de la Iglesia y del Estado Vasco, el cual negociará un concordato con la Santa Sede.

Quinto. Establecimientos penitenciarios, organización y el régimen de los mismos.

Sexto. Régimen tributario y económico, incluyendo impuestos, contribuciones, empréstitos, presupuestos, cuentas.

Séptimo. Vida y política económica del País Vasco, regulación industrial, mercantil y agrícola, organización corporativa, consejos de economía, Cámaras de Comercio y Agrícolas, Asociaciones de Navieros, Asociaciones Bancarias, Marina Mercante, separada de la militar; Instrucción y protección al personal marítimo; Cámaras mineras; Régimen de la propiedad inmueble, rústica y urbana y Cámaras de la propiedad e industriales; Propiedad comunal; Expropiación forzosa y en general, todas las instituciones y materias relacionadas con la economía del País Vasco.

Octavo. Seguridad pública y defensa, incluyendo Policía, Ejército y Marina militar.

Los contingentes del País Vasco, constituyendo parte del Ejército Español, serán una entidad con carácter propio dentro del mismo, formándose las unidades orgánicas y agrupaciones de orden más elevado que consientan los recursos en hombres de que se pueda disponer, llevarán la denominación de Milicias vascas y constituirán precisamente en tiempos de paz las guarniciones del País, no pudiendo ser empleadas fuera, sino en caso de maniobras militares, de grave alteración del orden público, así declarada por las Cortes y, en caso de guerra.

La instrucción preliminar se dará por instructores pagados por el Estado Vasco y nombrados a propuesta de éste por el Ministerio de la Guerra.

La forma de reclutamiento será de la exclusiva competencia del Estado Vasco, sin más limitación que la de que los reclutas sean aptos con arreglo a las leyes dictadas por la República que regirán también respecto a la organización y mando de las

estatutuek ezarritakoen bidez, bakoitzak bere eskumenen arabera jardunez, legeak egin, administrazioa burutu eta epaitzeko eskumena du, baita bere legeak eta dekretuak eta auzitegien eta epaitegien epaitzak betearazteko ere zenbait gaitan. Hona zerrenda:

Lehenengoa.- Euskal Herriaren eraketari eta bere araubide autonomikoari buruzkoak, eta Estatutu orokor hau eta probintziatiko estatutuak interpretatu eta aplikatzeari buruzkoak.

Bigarrena.- Toki-administrazioa, udalen antolaketa eta araubidea, bertako zerbitzuetarako atxikitako funtzionarioak barne; hau da, idazkariak, kontuhartzaileak, medikuak, osasun-ikuskatzaileak eta beste titular batzuk.

Hirugarrena.- Justiziaren antolaketa eta administrazioa era eta maila guztietan, eta erregistro zibilak, merkataritzakoak, jabetzakoak eta notaritzakoak antolatzea.

Laugarrena.- Elizaren eta Euskal Estatuaren arteko harremanak; Euskal Estatuak konkordatu bat egingo du Aulki Santuarekin.

Bosgarrena.- Espetxeak, eta espetheen antolaketa eta araubidea.

Seigarrena.- Zerga-araubidea eta ekonomia-araubidea, zergak, kontribuzioak, jesapenak, aurrekontuak eta kontuak barne hartuta.

Zazpigarrena.- Euskal Herriko ekonomia-bizitza eta ekonomia-politika, industriaren, merkataritzaren eta nekazaritzaren antolaketa, korporazio-antolaketa, ekonomia-kontseiluak, merkataritzako eta nekazaritzako ganberak, ontzijabeen elkarteak, banku-elkarteak, merkataritzako ontzidia, militarretik bereizita; itsas gizonen heziketa eta babesa; meaganberak; landa-lurreko eta hiriko jabetza higiezinaren araubidea, eta jabetzako eta industriako ganberak; herri-lurrak; jabetza nahitaez kentzea; eta, oro har, Euskal Herriko ekonomiarekin zerikusia duten erakunde eta gai guztiak.

Zortzigarrena.- Herriaren segurtasuna eta defentsa, polizia, armada eta itsasoko armada barne.

Euskal Herriko armada-taldeak, Espainiako armadaren parte izanik, nortasun bereziko izaki izango dira haren baitan, eduki daitezkeen giza ballabideak utzitako mailarik goreneko talde organikoak eta multzoak eratuta; Euskal Gudaroste deituko zaie, eta Euskal Herriko soldadu-taldeak izango dira bake-garaian; ezin izango dira kanpoan erabili, maniobra militarretan izan ezik, edo ordena publikoa larri nahasten denean, gorteek hala aldarrikatuta, edo gerra-garaian izan ezik.

Euskal Estatuak ordaindutako instrukzio-egileek emango dute hasierako heziketa, eta izendatu Gerra Ministerioak egingo ditu Euskal Estatuak proposatuta.

Euskal Estatuaren eskumen osokoa da soldaduskarako deia egiteko era, eta soldaduak gai diren jakiteko Errepublikak emandako legeak izango dira muga bakarra. Lege horiek izango dira arau, halaber, aipatutako euskal taldeen antolaketa eta

expresadas unidades vascas y la duración del servicio.

Noveno. Sanidad e Higiene.

Décimo. El régimen de los cementerios que estará sometido a la jurisdicción de los Municipios.

Undécimo. Enseñanza en todos sus grados y especialidades, Lengua y Cultura, Bellas Artes.

Duodécimo. Legislación social y del trabajo, ajustándose a los principios generales de protección al trabajador, prescritos por los convenios internacionales y los acuerdos de la Sociedad de Naciones, y partiendo como mínimo de las conquistas del proletariado, ya sancionadas por la legislación española.

El régimen financiero del Retiro Obrero, seguro de paro y de maternidad y demás instituciones de previsión.

Decimotercero. Beneficencia pública y privada, incluso el Patronato e Inspección de las fundaciones e instituciones benéficas o benéfico-docentes de carácter particular que existan en el País Vasco.

Decimocuarto. Obras públicas, minas, aguas, saltos de agua y ferrocarriles, tranvías, puertos, canales, caminos y montes, incluyendo los montes y minas que el Estado posee en el territorio del País Vasco que serán reintegrados al Municipio, Comunidad o Provincia correspondiente.

Los Puertos de Bilbao y de Pasajes serán objeto de una convención especial entre la República Española y el Estado Vasco.

Decimoquinto. Creación y fomento de la riqueza pública y privada forestal, agrícola, pecuaria, industrial, minera, caza y pesca, fluvial, marítima e industria pesquera.

Decimosexto. Comunicaciones interiores: aéreas, telegráficas, telefónicas e inalámbricas y los transportes por vía aérea, terrestre y marítima.

Decimoséptimo. Turismo, conservación y propaganda de las bellezas artísticas y naturales del País, juegos y espectáculos públicos.

Decimooctavo. Legislación civil, hipotecaria, procesal y notarial.

En el ejercicio de estas facultades habrán de tenerse en cuenta las normas siguientes:

A.- Principio fundamental

El Pueblo Vasco es reconocido como soberano en todo lo que no esté limitada su soberanía por las atribuciones de que taxativamente hace cesión, en este Estatuto al Estado Español.

Por consiguiente, asumirá todos los derechos y facultades que no se reserven para el poder del Estado Español en este Estatuto, y los ejercerá con la máxima intensidad y plenitud.

A estos efectos, se declara que quedan reservadas al Estado Español con respecto al Estado Vasco las materias siguientes:

aginteari dagokionez, baita zerbitzuaren iraupena zehazteko ere.

Bederatzigarrena.- Osasuna eta higieena.

Hamargarrena.- Hilerrietako araubidea, beti ere udalen jurisdikzioaren menpe.

Hamaikagarrena.- Maila eta espezialitate guztietako Irakaskuntza, Hizkuntza eta Kultura, eta Arte Ederrak.

Hamabigarrena.- Gizarte-gaietako eta laneko legedia, nazioarteko hitzarmenen bidez eta Nazioen Elkartearen akordioen bidez langileak babesteko agindutako printzipio orokorre lotuta, eta Espainiako legediak dagoeneko sendetsitako langileraren konkistak gutxieneko oinarri moduan hartuta.

Langileen Erretirorako finantza-araubidea, langabeziako eta amatasuneko aseguru eta aurreikuspeneko gainerako erakundeak.

Hamahirugarrena.- Ongintza publikoa eta pribatua, Euskal Herrian dauden ongintzako nahiz ongintza eta irakaskuntzako iraskunde eta erakundeekiko patronatua eta ikuskaritza.

Hamalagarrena.- Herri-lanak, meategiak, urak, ur-jauziak eta trenbideak, tranbiak, portuak, ubideak, bideak eta mendiak, Estatuak Euskal Herrian dituen mendiak eta meategiak barne; azken horiek dagozkien udal, erkidego nahiz probintzietan itzuliko zaizkie.

Bilboko eta Pasaiako portuak arautzeko hitzarmen berezi bat egingo da Espainiako Errepublikaren eta Euskal Estatuaren artean.

Hamabosgarrena.- Basogintzako, nekazaritzako, abeltzaintzako, industriako, meagintzako, ehiza eta arrantzako, ibaietako, itsasoko eta arrain-indutriako aberastasun publiko eta pribatua sortu eta sustatzea.

Hamaseigarrena.- Barruko komunikabideak: airetikoak, telegrafikoak, telefonokoak eta hariarik gabekoak, baita aireko, lurreko eta itsasoko garraioak ere.

Hamazazpigarrena.- Turismoa, Herriko arte eta naturako edertasunak zaintzea eta horien zabalkundea egitea, eta joko eta ikuskizun publikoak.

Hamazortzigarrena.- Legedi zibila, hipoteketakoa, prozesukoa eta notaritzakoa.

Ahalmen horiez baliatzean arau hauek izan behar dira kontuan:

A.- Oinarrizko printzipioa

Euskal Herria burujabea dela aitortzen da, Espainiako Estatuari Estatutu honetan zehazki utzitako eskumenek Euskal Herriaren burujabetasuna mugatzen ez duten beste puntu guztietan.

Beraz, beregain hartuko ditu Espainiako Estatuaren boterearentzat Estatutu honetan gorde gabeko eskubide eta ahalmen guztiak, eta indarririk eta osotasunik gehienaz beteko ditu.

Ondorio horietarako eta Euskal Estutuari dagokionez, gai hauek Espainiako Estatuarentzat gordeta gelditzen direla aldarrikatzen da:

1.- Toda la parte de la Constitución de la República relativa a la forma de Gobierno, los derechos individuales y sociales, derecho de sindicación y libre ejercicio de la actividad económica individual.

Todos estos derechos estarán bajo la salvaguardia del Estado nacional al cual podrán acudir con sus reclamaciones en última instancia, así los ciudadanos como las asociaciones, los municipios o las provincias del País Vasco, contra las infracciones que se cometieren por las autoridades o los particulares.

2.- La vida internacional de la República española, que ostentará la representación del Estado Vasco en sus relaciones exteriores y su sanción.

3.- Aduanas y política arancelaria

4.- Moneda, pesas y medidas

5.- Deuda del Estado Español

6.- Correos y Telégrafos, con las salvedades establecidas en este Estatuto para los servicios interiores del País Vasco.

7.- Guerra y Marina, con idénticas salvedades.

8.- Representación del País Vasco en el Parlamento Español y procedimiento electoral para constituirlo.

9.- Propiedad industrial e intelectual

10.- Derecho mercantil y penal

11.- Facultad de resolver las cuestiones interestatales

12.- El fomento y auxilio como medios de tráfico y comunicación internacionales de los grandes puertos de tal carácter, de la navegación marítima y aérea en las mismas condiciones y de la construcción de buques y aparatos aéreos

13.- La intervención en las iniciativas de carácter interestatal, para fijar, de acuerdo con los Estados a quienes afecten, las normas de su cooperación económica.

B.- Garantías.

El Pueblo Vasco tendrá garantizados por la Constitución de la República española, su territorio, su soberanía (dentro de los límites establecidos en los párrafos anteriores), su Constitución interna y las particulares de Alava, Guipuzcoa, Navarra y Vizcaya, la libertad y los derechos del Pueblo Vasco, los derechos constitucionales de sus ciudadanos y los derechos y las atribuciones que el pueblo haya conferido a sus autoridades.

Para el mantenimiento de estas garantías será preciso:

a) que la Constitución o Estatuto del País Vasco y su Gobierno, aseguren en todo momento el ejercicio de los derechos políticos de sus ciudadanos, bajo formas democráticas;

b) que dicha Constitución no contenga nada que sea contrario a las disposiciones de la Constitución

1.- Errepublikako Konstituzioan Gobernuaren eratzeko moduari, norbanakoen eta gizartearen eskubideei, sindikatuaren parte hartzeko eskubideari eta norbanakoen ekonomia-jarduera askatasunez burutzeko eskubideari dagokion guztia.

Eskubide horiek guztiok Estatu nazionalaren babespean egongo dira, eta azken buruan bereganatu ahal izango dute Euskal Herriko bai herritarrek zein elkarte, udal nahiz probintziak, hain zuzen agintariak nahiz partikularrek egindako arau-hausteen kontra erreklamazioak jartzeko.

2.- Espainiako Errepublikaren nazioarteko bizitza; kanpo-harremanetan eta harreman horiek sendesteko, bera izango da Euskal Estatuaren ordezkartza izango duena.

3.- Aduanak eta muga-zergen politika.

4.- Dirua, pisuak eta neurriak.

5.- Espainiako Estatuaren zorra.

6.- Posta eta telegrafoak, Estatutu honetan Euskal Herriko barne-zerbitzuarentako ezarritako salbuespenekin.

7.- Gerra eta Itsas-armada, aurreko puntuan aipatutako salbuespen berberekin.

8.- Espainiako Parlamentuan Euskal Herriak izan beharreko ordezkartza, eta hori eratzeko hauteskunde-prozedura.

9.- Jabetza industrial eta intelektuala.

10.- Merkataritzako Zuzenbidea eta Zigor Zuzenbidea.

11.- Estatuaren arteko arazoak erabakitzeko ahalmena.

12.- Nazioarteko trafiko eta komunikaziorako baliabide diren heinean, nazioarteko portu handiak sustatu eta bultzatzea, baita itsasketa eta aireko trafikoa eta komunikazioa ere baldintza berberetan, eta ontziak eta aire-aparatuak eraikitzea.

13.- Estatuaren arteko ekimenetan parte hartzea, dagozkien estatuarekin ekonomia-lankidetzarako arauak finkatu ditzan.

B.- Bermeak

Euskal Herriak, Espainiako Errepublikaren Konstituzioaren bidez, bermatuta izango ditu bere lurraldea, bere burujabetasuna (aurreko paragrafoetan ezarritako mugen barruan), bere barruko Konstituzioa eta Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko konstituzioak, Euskal Herriaren askatasuna eta eskubideak, bertako herritarren konstituzioko eskubideak, eta herriak bere agintariak eman dizkien eskubideak eta eskumenak.

Berme horiei eutsi ahal izateko, ezinbestekoa da:

a) Euskal Herriko Konstituzioak edo Estatutuak eta bertako Gobernuak bertako herritarren eskubide politikoak une oro demokrazioaren arabera betetzeko berme izatea;

b) Euskal Herriko Konstituzioak ez dezala Espainiako Konstituzioko xedapenen kontrako ezer

española, que sean de aplicación general para todo el Estado Español; y

c) que haya sido aprobada por el pueblo y no pueda modificarse o reformarse sino por el voto de la mayoría absoluta de sus ciudadanos.

Título quinto

La Lengua

Artículo 16. – La lengua nacional de los vascos es el euskera.

Ella será reconocida como oficial en iguales condiciones que el castellano.

Artículo 17. – En las escuelas de los territorios de lengua vasca, se utilizará el euskera como idioma vehículo de enseñanza, cursándose como asignatura en todos los grados el castellano; mientras que en las escuelas de zonas de lengua castellana se dará la enseñanza en este idioma, cursándose el euskera como asignatura en todos los grados.

Todos los funcionarios así administrativos como judiciales que presten servicio en los primeros, deberán ser conocedores del euskera.

Las respectivas Diputaciones demarcarán, a los efectos de este artículo, los territorios de lengua vasca.

Título sexto

Representación del Estado Español

Artículo 18. – La representación del Estado Español dentro de todo el territorio vasco corresponderá al Presidente del Consejo General, en quien el Gobierno Español delegará el ejercicio de las facultades que al mismo correspondan en dicho territorio en materia de orden público, publicación y aplicación de las leyes generales de la República española y de los Decretos de su gobierno en las funciones y materias que ejerza en territorio vasco.

Esta representación del Estado español, no autorizará en ningún caso a dicho Presidente para invadir las atribuciones y facultades que al País Vasco corresponden, con arreglo a este Estatuto, o que en adelante se le reconozcan, las cuales deberá respetar y hacer que sean siempre respetadas.

Título séptimo

Conflictos entre el Estado Vasco y la República

Artículo 19. – Los que no puedan resolverse por gestión directa entre las autoridades u organismos representativos de ambos Estados, se someterán a una Comisión mixta, nombrada la mitad por el Consejo General del País Vasco y la otra mitad por el Parlamento Español, presidida por el Presidente de la República española.

Si no estuviera funcionando el Parlamento y el asunto fuera urgente, los miembros del Estado Español en dicha Comisión mixta serían designados por el Consejo de Ministros de la República.

jaso, Espainiako Estatu osoan orokorrean aplikatzekoak badira; eta

c) herriak onartu izatea, eta ez dadila aldatu edo berriu bertako herritarren gehiengo osoaren botoekin ez bada.

Bosgarren titulua

Hizkuntza

16. artikulua.– Euskara da euskaldunen hizkuntza nazionala.

Bera ofizialtzat onartuko da, gaztelaniaren baldintza berberetan.

17. artikulua.– Euskaraz hitz egiten den lurraldeetako eskoletan euskara erabiliko da irakaskuntzako hizkuntza moduan, eta maila guztietan emango da gaztelania ikasgai moduan; gaztelaniaz hitz egiten den lurraldeetako eskoletan, aldiz, gaztelania erabiliko da irakaskuntza emateko, eta maila guztietan emango da euskara irakasgai moduan.

Lehenengo aipatutako lurraldeetan zerbitzua betetzen duten administrazioko funtzionario guztiek eta funtzionario judicial guztiek euskaraz jakin behar dute.

Aldundi bakoitzak zedarrituko ditu euskararen lurraldeak, artikulua honen ondorioetarako.

Seigarren titulua

Espainiako Estatuaren ordezkari

18. artikulua.– Kontseilu Nagusiko lehendakariari dagokio euskal lurralde osoan Espainiako Estatuaren ordezkari izatea. Espainiako Gobernuak lehendakariari emango dizkio eskuordetzan lurralde horretan dagozkion ahalmenak, bai ordena publikoari dagokionez, Espainiako Errepublikaren lege orokorrak eta bere gobernuaren dekretuak argitaratu eta betearazteko, euskal lurraldean eskumenekoak dituen eginkizunen eta gaien gainean, dekretuen kasuan.

Espainiako Estatuaren ordezkari izateak ez dio lehendakariari inola ere baimenik emango Euskal Herriari Estatutu honen arabera dagozkion eskumenak eta ahalmenak zapaltzeko, ez aurrerantzean onar dakizkionak zapaltzeko ere, guztiak errespetatu eta errespetarazi behar ditu eta.

Zazpigarren titulua

Euskal Estatuaren eta Errepublikaren arteko gatazkak

19. artikulua.– Estatu bien ordezkari diren agintari edo erakundeek zuzeneko izapideen bidez erabaki ezin dituzten gatazkak bitariko batzorde baten irizpenera jarriko dira. Batzordeko kide erdiak Euskal Herriko Kontseilu Nagusiak izendatuko ditu eta beste erdiak Espainiako Parlamentuak, eta Espainiako Errepublikako lehendakaria izango da batzordeko lehendakari.

Baldin eta Parlamentua jardunean egon ez eta arazoa presakoa bada, Errepublikako Ministroen Kontseiluak izendatuko ditu bitariko batzorde horretan Espainiako Estatuaren izenean izan

Título Octavo

Los Estatutos particulares

Artículo 20. – De conformidad a lo establecido en la declaración preliminar, Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya formarán y aprobarán libremente sus respectivos Estatutos particulares para su régimen interno, sin otras limitaciones que las siguientes:

- a) Sus Asambleas legislativas serán elegidas por sufragio universal bajo formas democráticas o tradicionales, admitiéndose también el sufragio indirecto de los Ayuntamientos siempre que éstos hayan sido elegidos por sufragio universal directo.
- b) No contendrán estos Estatutos particulares, disposición alguna que esté en contradicción u oposición con este Estatuto.
- c) Será respetada la Autonomía municipal.
- d) El poder legislativo será ejercido en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya por las Juntas Generales y en Navarra por las Cortes.

El ejecutivo correrá a cargo de las Diputaciones en las cuatro.

El poder judicial será también en todas ellas ejercido por la Judicatura o Cuerpo Judicial y Fiscal Vasco.

e) De las facultades genéricamente atribuidas al Estado Vasco competarán al Consejo General las que expresamente se consignan en el presente Estatuto y aquellas que por resolución de todas las provincias se estime conveniente ejercerlas mancomunadamente.

Las demás serán ejercidas en cada Provincia por sus organismos peculiares privativos.

f) Estos Estatutos particulares se elevarán al Consejo General y al gobierno de la República, para el solo efecto de examinar si hay en ellos algo contrario a este Estatuto General del Estado Vasco.

Título noveno

Régimen de relaciones Tributarias

Artículo 21. – Estando vigentes en el País Vasco el Concierto Económico con las Vascongadas y el Convenio de Navarra, sancionados por los Reales Decretos de 9 de junio de 1925 y 15 de agosto de 1927, una vez aprobado el presente Estatuto y establecidos los organismos dirigentes del Estado Vasco, éste, previa consulta y aprobación por parte del Pueblo Vasco, representado por los Ayuntamientos, propondrá al Gobierno de la República dentro del término máximo de diez meses, una nueva regulación de las relaciones tributarias sobre la base del mantenimiento de los cupos actuales, con las correcciones inherentes a la delimitación de funciones, servicios y facultades establecidos en el presente Estatuto.

Título décimo

Reforma de este Estatuto

Artículo 22. – Para la reforma de este Estatuto General, se exigirán los mismos requisitos y garantías que para la reforma de la Constitución de la República española, siendo precisa en todo caso

beharreko kideak.

Zortzigarren titulua

Probintzietako estatutuak

20. artikulua.- Atariko aldarrikapenean ezarritakoarekin bat etorrituz, Arabak, Gipuzkoak, Nafarroak eta Bizkaiak bakoitzak bere estatutua egin eta onartuko du askatasunez barne-araubiderako, eta mugapen hauek izango dituzte bakarrik:

- a) Bakoitzaren biltzar legegilea guztien botoaz aukeratuko da, demokrazia edo ohiko eran eranda; hala ere, udalen zeharkako botoa ere onartuko da, baldin eta udalak guztien zuzeneko botoarekin aukeratu badira.
- b) Probintzia bakoitzaren estatutuetan ezin izango da jaso Estatutu honen kontra edo aurka dagoen inolako xedapenik.
- c) Errespetatu egin beharko da udalen autonomia.
- d) Araban, Gipuzkoan eta Bizkaietan Batzar Nagusiek beteko dute botere legegilea, eta Nafarroan, Gorteek.

Botere betearazlea aldundiek beteko dute lau probintzietan.

Eta botere judiziala Euskal Epailtza eta Fiskaltzak beteko du laurretan.

e) Euskal Estatuari orokorrean egotzitako ahalmenen artetik Kontseilu Nagusiaren eskumenekoak izango dira Estatutu honetan berariaz izendatutakoak eta probintzia guztien erabakiz mankomunatuta betetzea komeni direnak.

Gainerakoak probintzia bakoitzean beteko dira bertako erakunde berezien bidez.

f) Kontseilu Nagusiari eta Errepublikako Gobernuari igorri beharko zaizkie probintzietako estatutu horiek, bertan Euskal Estatuaren Estatutu Orokor honen kontrako ezer dagoen aztertu ahal izateko.

Bederatzigarren titulua

Zerga-harremanen araubidea

21. artikulua.- Euskal Herrian Euskal Probintzietako Ekonomia Ituna eta Nafarroako Hitzarmena daudenez indarrean, bata 1925eko ekainaren 9ko Errege Dekretuaz eta bestea 1927ko abuztuaren 15eko Errege Dekretuaz onartuak, Estatutu hau onartu eta Euskal Estatuak erakunde zuzendariak ezarri eta gero, Euskal Estatuak, udalek duten ordezkartzaren bidez Euskal Herriari kontsulta egin eta horrek onartu ondoren, gehienez ere hamar hilabeteko epean zerga-harremanetarako araubide berri bat proposatuko dio Errepublikako Gobernuari, egungo kupoei eustea oinarrian dela, Estatutu honetan ezarritako eginkizun, zerbitzu eta ahalmenei darizkien zuzenketak sartuta.

Hamargarren titulua

Estatutu hau aldatzea

22. artikulua.- Estatutu Orokor hau aldatzeko, Espainiako Errepublikako Konstituzioa aldatzeko eskakizun eta berme berberak eskatuko dira, eta Kontseilu Nagusiaren eta lau probintzietako biltzar

la conformidad del Consejo General y la de las Asambleas Legislativas de la cuatro Provincias.

Disposiciones transitorias

Primera.- Será necesario la intervención de los Ayuntamientos del País para la aprobación de este Estatuto.

Segunda.- Una vez aprobado y publicado en la "Gaceta" el Estatuto, se procederá para su implantación del modo siguiente:

Dentro de los 20 días consecutivos a dicha publicación la Comisión de municipios convocará a Asambleas de Ayuntamientos para la designación de veinte individuos por cada provincia, que con capacidad para desempeñar el cargo según este Estatuto, las representen en el Consejo General que ha de asumir de un modo provisional todos los poderes de la totalidad del País.

Tendrán la facultad de dirigir y promover la Constitución interna de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, previa aprobación por ellas mismas de sus Estatutos particulares y la realización de las elecciones de sus privativas Asambleas Legislativas y demás trámites necesarios al efecto con arreglo a ellos y a las disposiciones que el pueblo adopte, en cada provincia, consultando con el dicho Consejo General las dificultades que se ofrezcan.

Esta labor deberá efectuarse en el término de dos meses a partir de la fecha de la Constitución provisional del Consejo.

Constituídas por Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya, sus respectivas Asambleas Legislativas elegirán el Consejo General definitivo, que tomará posesión seguidamente, constituyéndose en la forma establecida en este Estatuto y cesando, ipso facto, el Consejo Provisional.

Tercera.- El Consejo General hará libremente los nombramientos de todo el personal del Tribunal Supremo que ha de iniciar la organización autónoma de la Justicia.

Este Tribunal, asistido de los Decanos de los Colegios de Abogados y Notarios, será el que proceda a designar a los funcionarios que han de integrar el cuerpo judicial y fiscal, que a su vez iniciará aquella organización con arreglo a las bases que previamente haya adoptado el Consejo General.

Disposiciones complementarias

Una vez que el Consejo definitivo hubiera tomado posesión de su cargo, procederá sin demora a la redacción de los siguientes reglamentos o cuerpos legales complementarios.

a) Reglamento de organización, funciones y modo de proceder del Consejo General con determinación de las atribuciones que de las materias reservadas al Estado Vasco en este Estatuto le correspondan exclusivamente y de las que se le asignen para la labor de relacionar y coordinar la acción de los organismos representativos de las cuatro provincias.

b) Reglamento orgánico de la judicatura o cuerpo judicial y fiscal vasco, en el que se fijarán las

legegileen adostasuna beharko da nolanahi ere.

Aldi baterako xedapenak

Lehenengoa.- Estatutu hau onartzeko, Euskal Herriko udalek hartu beharko dute parte.

Bigarrena.- Estatutua onartu eta "Gacetan" argitaratu ondoren, pauso hauek emango dira bera ezartzeko:

Aipatutako argitalpena egin ondorengo 20 egunen barruan, Udalen Batzordeak Udalen Biltzarrei egingo die dei probintzia bakoitzetik hogeitaz lagun izenda ditzaten, Estatutu honen arabera kargua betetzeko gaitasunarekin, Kontseilu Nagusian probintzien ordezkia egin dezaten, Euskal Herriko eskumen guztiak bereganatu behar ditu eta behin-behinean.

Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko barne konstituzioa zuzendu eta sustatzeko ahalmena izango dute, probintzia bakoitzak bere estatutua onartu ondoren, eta biltzar legegile bakoitzerako hauteskundeak egin eta hori bideratzeko beharrezko gainerako izapideak egiteko, estatutuen arabera eta probintzia bakoitzean herriak onartutako xedapenen arabera; zailtasunik izanez gero Kontseilu Nagusiari eskatu behar diote aholkua.

Lan hori bi hilabeteko epean egin behar da, Kontseilua behin-behinean eratzen denetik aurrera.

Arabak, Gipuzkoak, Nafarroak eta Bizkaiak bakoitzak bere biltzar legegilea onartu ondoren, biltzar legegile horiek aukeratuko dute behin betiko Kontseilu Nagusia, eta berehala jabetuko da karguaz, Estatutu honetan ezarritako moduan eratuta geratzeko; eta behin-behineko Kontseiluak ipso facto utziko du kargua.

Hirugarrena.- Kontseilu Nagusiak askatasun osoz egingo du Auzitegi Nagusiko kide guztien izendapena, eta horrek Justiziaren antolaketa autonomoari ekin beharko dio.

Auzitegiak, Abokatu eta Notarioen elkargoetako dekanoen laguntzaz, Epailletza eta Fiskaltza osatu behar dituzten funtzionarioak izendatuko ditu; Epailletzak eta Fiskaltzak antolaketa autonomoari ekingo diote, aurrez Kontseilu Nagusiak onartutako oinarrien arabera.

Xedapen osagarriak

Behin betiko Kontseiluak, bere karguaz jabetu ondoren, erregelamendu edo lege-testu osagarri hauek idatziko ditu denborarik galdu gabe.

a) Kontseilu Orokorraren antolaketa, eginkizun eta jarduteko moduari buruzko erregelamendua, Estatutu honetan Euskal Estatuarentzat gordetako eskumenen artetik Kontseiluari bakarrean dagozkionak zehazteko, eta lau probintzien ordezkari diren erakundeen egintza koordinatu eta lotzeko agintutako eskumenak zehazteko.

b) Euskal Epailletza eta Fiskaltzaren erregelamendu organikoa, zehazki, funtzionarioen independentzia

necesarias garantías para asegurar la independencia de los funcionarios, su inamovilidad, modo de ingreso, procedimiento para las oposiciones, nombramientos, jubilaciones, categorías, escalafones y demás condiciones.

Igualmente se reglamentará la materia de registros Civil, Mercantil y de la Propiedad, el Notariado y el régimen de los establecimientos penitenciarios.

c) Reglamento de procedimiento civil y contencioso administrativo a que ha de ajustarse la actuación de las partes y de los Jueces, Fiscales y Tribunales integrantes del referido Cuerpo Judicial y Fiscal en las contiendas que se promuevan en ambas materias.

Mientras otra cosa no se disponga, el Estado Vasco hace suyo el procedimiento para lo penal establecido por la Ley de Enjuiciamiento Criminal de 1882.

d) Reglamento de instrucción pública y cultura en el que, previa determinación de las atribuciones especiales que en materia de enseñanza se han de reservar respectivamente a los Ayuntamientos, a los organismos de los Estados particulares y al Consejo, se fijen las reglas comunes a que ha de ajustarse el País Vasco para la organización de los diversos grados de la misma, incluso los de la Universidad y las Escuelas profesionales e Instituciones de ampliación, de investigación y de cultura en todos los órdenes.

e) Instrucción para el mantenimiento del orden público y la organización del servicio militar y matrículas de mar en el Estado Vasco.

f) Reglamento de administración local.

g) Reglamento de beneficencia

h) Reglamento de sanidad

Estos Reglamentos, una vez aprobados por el Consejo General, se enviarán a las Diputaciones de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya para su aprobación.

Serán aplicadas al Estado Vasco todas las leyes y facultades no consignadas en este Estatuto que las Cortes o el Gobierno de la República establezcan a favor de otros Estados Federados y sean aceptadas por el propio Estado Vasco.

ziurtatzeko beharrezko bermeak, funtzionarioen mugiezintasuna, sartzeko modua, oposizioetarako prozedura, izendapenak, erretiroak, kategoriak, lerrundegiak eta gainerako baldintzak finkatzeko.

Aldi berean erregistro Zibila, Merkataritzakoa eta Jabetzakoa arautuko dira, baita notaritza eta espetxeetako araubidea ere.

c) Prozedura zibileko eta administrazioarekiko auzietako prozedurako erregelamendua, gai bion inguruan sortutako eztabaidetan horretara lotu behar baitira alderdiak eta Epailtza eta Fiskaltza osatzen duten epaileak, fiskalak eta epaitegiak.

Besterik xedatzen ez den artean, Euskal Estatuak bere egiten du 1882ko Prozedura Kriminaleko Legeak penalerako ezarritako prozedura.

d) Hezkuntzako eta kulturako erregelamendua. Bertan, irakaskuntza-gaietan udalentsat, lau estatuetako erakundeentsat eta Kontseiluarentzat gordetako eskumen bereziak zehaztu ondoren, Euskal Herriak hezkuntzako maila guztiak antolatzeko bete beharko dituen arau komunak finkatuko dira, Unibertsitatekoak, lanbide-eskoletaoak eta eremu guztietako zabalkunde, ikerketa eta kulturako erakundeetakoak barne.

e) Ordena publikoa zaintzeko, soldadutza antolatzeko, eta itsasoko matrikulak Euskal Herrian arautzeko jarraibidea.

f) Toki-administrazioaren erregelamendua.

g) Ongintzako erregelamendua.

h) Osasuneko erregelamendua.

Erregelamendu horiek, Kontseilu Nagusiak onartu ondoren, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko aldundiei bidaliko zaizkie onar ditzaten.

Estatutu honetan jaso ez arren, Gorteek edo Errepublikako Gobernuak beste estatu federatu batzuen alderako ezarritako lege eta ahalmen guztiak aplikatuko zaizkio Euskal Estatuari, Euskal Estatuak berak onartzen baditu.